

JAIZKIBEL



Zelai heze berdeak
goroldioz jantzirik
haitzak eta leizeak.
Itsasoak moldatzen ditu
zure forma leunak
kolpeka, laztanduz
zure sabela.

Baina, maitea,
zure gorputz leunean
nork suntsidura erein,
nork erre zituen
zure bular joriak?

Garai bateko pinu lerden garaiak
kapelaz zerua igurtzi nahiean,
zure bularretik edaten zuten
bihotzeko seme kuttunak
zure errain antzuetan orain
datzate ehortziak.

Udaberriz eztiki, zure lorategian
galtzen ginen jolasean,
haur algara goxoen oihartzunak
nonahi
alaitasunez mozkorturik
zure bazter guztiak;
pinudi garaien itzalpetan babestuak
bero egunetan,
arnasten sakoneraino
zerizun lurrin fresko berdea.

Gaur, Jaizkibel,
begira goibel, lainotsuz
itsasoari so
oroitzapenak moltsotuz,
non ote da galdu
zure iraganeko lilura hura?

Zugana nator agur esatera,
zure magaletan etzanik,
zure taupada geldoen lasaitasunean,
arratseko bakardadean.

Errukirik gabe iraindua
hor zaude, zure ezintasunean
dama miresgarria,
Udaberri berri baten zai,
agian inoiz helduko ez den
Egunsentia.

*Arantzazu Etxeburua
"V. Gazteen Literatur Olerkia" (1990)*

